

Eta Garizumeari zer eskatuko deutsalagu?

Oraindino Gabon oiartzunak alden-
du barriak dira. Ume askok ez dabe lor-
tu Erregeenez jaso eben jostailuak ba-
rruan zer daukan ikustea, eta
dagoaneko Garizuma deiak ekarriko
deuskuz zezilak edo orain esaten dabe-
nez otsailak. Eguen Zuriak, Txitxibur-
duntziak, Aratusteak eta zaparradak
igaro eta bertan, Austerre eguna ilaren
21-ean, biozbarritze deika, penitentzia
preminak gogoratzera.

Zergin aundi bati emon bear deustan
pertsoneak derriorrezkoa dau gauzak
sakon pentsatu eta prestatzea. Esan
deioela bestelan bizitzan zeezer izan gu-
rari ikasten asten danari. A zelako ga-
rizumea liburuena gainean eta urteetan!

Kristok bere biziko asmoari asiera
emoteko unea eldu jakonean, berrogei
egun eta berrogei gautako otoi-barau-
penitentzia luzea egin eban. Ori izan zan
leenengo Garizumea. Eta leenagoko
kristinauen Garizuma aldiak be gogo-
rrak izaten ziran. Bijili eta baraez gai-
nera, erri-oiituretan begiramena, kris-
tinanau-ikasbideak ekarzan egiak
berrikustea, etabai:

Eleizeak urtero gogoratzen deusku
Jesusen bizitzako partate au, eta urtero

biozbarritzerako deiak egiten deuskuz
liturgiaren bidez, Gotzainen agirien bi-
dez... Eta askok, —geienak esaten ez
naz ausartzen eta—, Jaungoikoagazko
artu-emonak zerbait konpontzeari be
ekin oi deustie.

Garizumeak barriztatze deiak dakar
ekarri, baina guri zer ekarriko ete deus-
ku? Geuk bilatzen doguna. Batzuei
euren idealetan serioagoak izatea eka-
rriko deutse, eta norbaitek, bearbada,
Eleizearen zerbitzuan bere bizitzea bete-
tzeko erabagia artuko dau ausak; bes-
teren batzuk, besterik ezean, umetan
ikasi eben kristau-ikasbide ari autsak
kendu eta orduan ikasi zituen fedezko
egiak apur bat berrikusera joko dabe;
besteren batzuk... gogorkeria bideak
bastertzea edo, etab. luze bat aitatu lei-
teke. Eta zuri eta niri zer ekarriko ete
deusku? Erregen egun barri bat balitz
lez eskean asiko bagina, zer eskatuko
deustagu aurtengo Garizumeari?

Ateetan dogu eta pentsatu egin bear-
ko dogu, pentsatu eta erabago.